

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 255/2016 Foru Agindua, urriaren 14koa, Eskuernagako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa ematen duena**

Eskuernagako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (aurrerantzean, HAPO) Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozeduraren eraginpean dago. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du aipatutako prozedura; urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, berriz, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen du.

Prozedura horren eremuan, 2015eko azaroaren 13an, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismen agiria eman zuen, arestian aipatu dugun ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 5. artikulua xedatzen duenari jarraiki. Agiria eman baino lehen, kontsulta egin zitzaion eragindako herri administrazioei, natura ikertzea eta zaintzea helburu duten elkarteei eta gainerako interesdunei, eta jasotako erantzunak Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismen agirian jaso eta txertatu ziren. Geroago, Eskuernagako Udalera helarazi zen agiria.

Eskuernagako Udalak, 2016ko uztailaren 22an, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eman zezala eskatu zion Ingurumen eta Hirigintza Sailari. Eskariarekin batera, ondoko agiriak jaso ziren honako honen esparruan: "Udalean izapidetutako espedienteak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa onartzeko, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Iraunkortasunaren Zerbitzuak Ingurumen Adierazpen Estrategikoa emateko helburuz":

Paperezko euskarrian:

1. Udal idazkariaren txostena.
2. Eskuernagako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hasierako onarpena eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren ingurumen iraunkortasunari buruzko txostena. Azkena Eskuernagako udalbatzak prestatu zuen 2015eko abenduaren 22an.
3. Hasierako onarpenaren eta ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenaren jendurreko agerpena. Txostena 2016ko urtarrilaren 15eko ALHAOn, 5. zenbakian, argitaratu zen, bai eta El Correo egunkarian ere, 2015eko abenduaren 20an.
4. Jendurreko informazio aldiaren egindako kontsultak, 2015eko azaroaren 13ko Irismen Agirian ageri den bezala.
5. Jendurreko agerpenaren emaitzen ziurtagiria eta norbanakoek aurkeztutako alegazioak:
  - Txostengileek egindako txostena alegazioei erantzuteko.
  - Interesdunentzako erantzuna eta aipatutako alegazioak ebatzi zituzten udalaren maiatzaren 4ko eta 31ko osoko bilkuretan hartutako erabakien jakinarazpena.
6. Kontsulteren aldiaren, kontsultatutako erakundeek aurkeztutako txostenak.
7. Txostengileek emandako erantzuna kontsulteren aldiaren aurkeztutako txostenei.

Paperezko euskarrian eta CDn

1. Hirigintza agiria

– A agiria. Behin-behinean onartzeko memoria.

- B agiria. Araudia.
- D agiria. Ekonomia eta finantza bideragarritasunaren azterketa eta iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoria.
- Planoak.

## 2. Ingurumen azterketa estrategiak (planoak jasota ditu).

Ingurumen Iraunkortasunaren Zerbitzuak, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren eskariz, honako Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eman du, 21/2013 Legearen 25. artikulua ezarritakoari men eginez, formari nahiz edukiari dagokienez.

Arestian aipatu dugun 21/2013 Legearen 26. artikulua xedatzen duenari jarraiki, Ingurumen Adierazpen Estrategikoan jasotzen diren zehaztapenak HAPOn txertatu behar dira.

1. Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertu diren balizko kokalekuen aukerak.

### 1.1. Hiri Antolamenduko Plan Orokorren ezaugarri orokorrak.

Eskuernagako Udalak emandako informazioari erreparaturik, Eskuernagako HAPO berriaren helburu nagusietako batzuk ondokoak dira:

- Hiri lurzoru eta/edo lurzoru urbanizagarriaren gehikuntza arrazoizkoa aztertzea, halako eran non udalak kontrolatu ahal izango duen etorkizuneko hiri hazkundera, alde batetik, egungo eskaerari eta lurralde antolamenduko aurreikuspenei erreparaturik eta, bestetik, ahal den neurrian, Eskuernagako herriaren ohiko hiri morfologiari eutsirik.

- Eskuernagako hiri bilbeari lotuta dauden eta bilbe horren jarraipena eratzen duten lurzoru urbanizagarriak zedarritzea, bilbea osatzen duten egiturazko elementuen azken itxura aurretiaz iragarrita:

- Ide sarea, gune libreak, ekipamenduak eta eraikigarriak diren lurzatiak.

- Gune libre, ekipamendu, oinarriko azpiegitura eta zerbitzu azpiegiturei dagokienez, Eskuernagako herrigunean dauden zuzkidura gabeziak edo defizitak zuzentzeko jarduketak zehaztea, eta herrigunearen hazkunde harmoniatsua saihesten duten egoerak konpontzea.

- Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean sortzen diren intentsitate berriei eta udalerraren epe luzeko beharrezan erantzuteko zerbitzu, ur hornidura, hiri saneamenduko isurketen arazketaren kontrol eta komunikazio azpiegituren ezarpena eta gauzapeña proiektatzea.

- Bizitegi eremuetan, nekazaritza sektoreari lotutako industriako erabilera txikiak arautzea eta horiei eustea.

- Herrigunean lehendik dauden tradiziozko upeltegien edo sotoen erabilerak arautzea eta haiei eustea.

- Urbanizatutako eta eraikitako ondarearen elementuak katalogatzea, eta horiek babesteko politika egokiak ezartzea.

- Babes bereziko eremuak zedarritzea, eremu horien kalitatea, gaitasun maila eta/edo ahultasunaren arabera, bertan garatuko diren jarduerak aintzat hartuta.

- Eremu eta leku ekologikoak eta zientifikoak babestu, zaindu eta hobetzea, flora eta fauna hartzeko ahalmenaren arabera, eta haietan dauden arkitektura eta arkeologia aztarnen arabera, egungo egoerari eutsita eta oreka egoera baliotsuagoetara bilaka daitezzen ahalbidetuta.

- Nekazaritza balio handiko lurzorua gogotik babestea.

- Ikus eragin handia eta onuragarria duten gorabehera naturalak edo artifizialak babestea eta neurri zuzentzaile egokiak hartzea eragin kaltegarria dutenen aurrean.

- Flora eta fauna autoktonoak babestea, bereziki sare hidrologikoko ibaiertzetan bizi direnak.
- Udalerriak igarotzen diren ibaiak eta errekek babestu, zaindu eta hobetzea.
- Akuiferoak, lurzorua, ingurumena edo paisaia kutsa dezaketen jardueren garapena kontrolatzea, eta mota horretako jarduerak prebenitzeko eta/edo zuzentzeko neurri egokiak zehaztea.
- Landa eremuan etxebizitza bakanak ager daitezzen mugatzea, lurraldeko plangintzak, lege-riak eta egun indarrean dauden gainerako araudiek onartzen dituztenak baino ez baimentzea, betiere nekazaritza jardueri lotuta.
- Eremuan dauden elementuek badaukaten ahalmen egituratzaile eta lotzaile berriak indartzea, hala nola Eskuernagako herrigune osoa zeharkatzen duen Herrera errekaarena. Horretarako, errekaaren ibilgua eta ertzak behar bezala tratatu behar dira hidraulika, ingurumen eta hirigintza aurreikuspenetik, erreka konektore eta korridore ekologikoa izan dadin iktiofauna, abifauna eta errekarari lotuta dagoen gainerako faunarentzat.

### 1.2 Ingurumen ebaluazio estrategikoan aztertu beharreko eremu geografikoa.

Eskuernagako Udalak sustatu duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) Eskuernagako Udalaren antolamendua zehazten du eta, beraz, horixe bera da ebaluazioaren xede den edo aztertu behar den eremu geografikoa. Eskuernagako Udala Euskal Autonomia Erkidegoaren hegoaldeko muturrean dago, Arabako lurraldean; Eltziego eta Mañeta udalerririk ditu mugakide hegoaldean. Eskuernaga Arabako Errioxako eskualdearen barruan dago eta 8,68 km<sup>2</sup>-ko azalera dauka.

### 1.3 Aztertutako aukerak

Ingurumen Azterketa Estrategikoan proposatutako eta jasotako aukerak ez dira Hasierako onarpenaren agirian aurkeztutako berdinak, alde batetik, Ingurumen Iraunkortasunaren Zerbitzuak 2015eko azaroaren 13an emandako Irismen Agirian jaso ziren irizpenen ondorioz, eta bestetik, parte hartze prozesuan, udalaren egoitzan egindako oharren ondorioz.

HIRI LURZORUA BERRIRO ZEDARRIZTATZEA		
MOTA	AZALERA (M <sup>2</sup> )	EZAUGARRIAK
HIRI LURZORUAREN SAILKAPENA: 1	737,27	Helburua da A-3214 foru errepideari dagokion Komunikazioen Sistema Orokorraren zedarriztapena egokitzea.
HIRI LURZORUAREN SAILKAPENA: 2	1.112,29	Antza denez, lurzattia erabili gabe dago eta azaleraren gehiengoa landaretza erruderal-nitrofiloa eta habitat interesgarritzat hartutako albizi bat hedatzen dira. Bestetik, zenbait kamioik egiten dituzte maniobrak han eta ondoko jarduerari datzekion elementu batzuk ageri dira eremuan.
HIRI LURZORUAREN SAILKAPENA: 3 eta 4	828,20	Helburua da dagokion mugaketa Komunikazioen Tokiko Sistemari egokitzea.
HIRI LURZORUAREN SAILKAPENA: 5	391,81	Baskulak osatutako errepideetako ekipamendua dagoen lurzatiari dagokio. Komunikazioen Tokiko Sistemaren barruan txertatu da.
HIRI LURZORUAREN SAILKAPENA: 6	2.776,16	Helburua da A-3214 foru errepideari dagokion Komunikazioen Sistema Orokorraren zedarriztapena egokitzea.
HIRI LURZORUAREN DESKLASIFIKAZIOA: 1	1.021,94	Herrera erreka mugakidea da; azaleko urak babesteko lurzoru urbanizaezinaren sisteman txertatu da.

INDUSTRIAKO LURZORUEN AUKERAK		
MOTA	AZALERA (M <sup>2</sup> )	EZAUGARRIAK
1. aukera. "Herrera" industria eremua (Hegoaldea) (AIU VI-9)	22.226,10	Herrera erreka ezkerrean dagoen esparruaren hegoaldeko industria eremua. Hala, Batasunaren intereseko habitat gisa sailkatutako ibarbasoa, oso egoera onean dagoena, ageri da eremuaren barruan. Helburua da hegoaldeko industria eremua hedatzea. Eremu horretan, ezaugarriak dira upeltegi txiki eta "trinkoak".

HAPOnen berrikuspenak jasotzen duen industria garapen hori indarrean dagoen planean “urbanizaezina” den lurzoru batean proposatu da. Beraz, hirigintza birklasifikazioa da.

BIZITEGI LURZORUEN AUKERAK				
AUKERA	AZALERA (M <sup>2</sup> )	LURZORUAREN KALIFIKAZIOA	ETXEBIZITZEN GEHIENEN KOPURUA	OHARRAK
1. aukera. “Palacio” bizitegi eremua (erdialdea)	5.212,39	Hiri lurzoru finkatu gabea, urbanizazioaren zioz	12	Hasierako agirian, “Mayor” izena zeukan.
2. aukera. “Viura” bizitegi eremua (ekialdea)	5.942,81	Hiri lurzoru finkatu gabea, urbanizazioaren zioz	14	
3. aukera “Las Coronillas” bizitegi eremua (mendebaldea)	7.923,00	Hiri lurzoru finkatu gabea, urbanizazioaren zioz	14	Hasierako agirian, “Samaniego” izena zeukan.
4. aukera “San Torcuato” bizitegi eremua (hegoaldea)	8.565,56	Hiri lurzoru finkatu gabea, urbanizazioaren zioz	12	Hasierako agirian, “El Ribazo” izena zeukan.
5. aukera “San Torcuato” bizitegi eremua (iparraldea)	3.972,90	Hiri lurzoru finkatu gabea, urbanizazioaren zioz	6	
6. aukera “El Ribazo” bizitegi eremua (mendebaldea)	6.842	Urbanizagarri sektorizatua	14	

Sustatzaileak berak bazter utzi du 6. Aukera, bai aurreko aldietan, bai oraingo aldian ere. HAPO berriak gainerako aukerak, hau da, 1, 2, 3, 4 eta 5. aukerak onartu ditu. Nabarmendu beharra dago lehen aipatutako bost bizitegi eremu horiek proposatzen direneko eremuen kalifikazioa hiri lurzoruarena dela indarrean dagoen planean; hortaz, oraingo honetan, aurrera jo nahi da eremuak sektorizatzen eta zehazten, baina ez dira hirigintza birklasifikazioak.


SISTEMA OROKORREN AUKERAK		
MOTA	KOKALEKUA	EZAUGARRIAK
Ekipamenduen sistema orokorra	21. lurzatia, 5. poligonoa	Proposamen honen helburu nagusia da udalerriko ekipamenduen eskaintza handitzea, eremu horren garrantzia eta beste zuzkidura publiko batzuen ondoan dagoela baliatuta.
Komunikazioen sistema orokorra	Arabako Errepideen Plan Integralean (AEPI) jasotakoa	Ez da lurzoru gehiagoren kalifikaziorik aurreikusten Komunikazioen sistema orokorrean txertatzeko, udalez gaindiko ordenamendutik eratorritakoak (adb. AEPI) izan ezik.
Gune libreen sistema orokorrak	5. lurzatia, 2. poligonoa 545. lurzatia, 2. poligonoa (A, B eta C) 88. lurzatia, 2. poligonoa	Eskuernagako hondakindegia zaharra zegoen eremu leheneratua “gune libreen sistema orokortzat” kalifikatzea proposatu da. Eremu horren ezaugarriak ikusirik, Adierazpen honek eskatu du “lurzoru urbanizaezin” sailkatzea eta “ingurumen hobekuntza” gisa kalifikatzea, azken kalifikazio hori egokiagoa delako eremuaren ezaugarriei erreparatuta.
Zerbitzuen azpiegituren sistema orokorrak	320. lurzatia, 5. poligonoa 890. lurzatia, 4. poligonoa	Proposamen honen helburu nagusia da lursailak egokitzea Arabako Errioxako Ur Partzuergoa gauzatzen ari den hondakin urak tratatzeko sisteman erabiltzeko.

LURZORU URBANIZAEZINA ZONABANATZEKO AUKERAK	
KATEGORIA	AZPIKATEGORIA
Babes bereziko eremuak	Historia eta kultur balioa dela (J.1.2.)
	Ingurumen hobekuntzakoak (J.1.3.)
	Basogintza balioa dela eta (J.1.4.)
	Nekazaritza eta abeltzaintza balioa dela eta (J.1.5.)
	Azaleko uren babesa (J.1.7.)
Zaindutako eremuak	Interes naturala dela eta (J.2.1.)
	Ingurumen hobekuntzakoak (J.2.3.)
	Basogintzako interesa dela eta (J.2.4.)
	Nekazaritza eta abeltzaintza balioa dela eta (J.2.5.)
	Hiri garapenean erabiltzeko desegokiak direlako (J.2.7.)

<b>GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEEN AUKERAK</b>
Ereму higagarriak edo higatzeko arriskuan daudenak.
Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak.
Ustezko arkeologia eremuak.
Geologia intereseko eremuak.
Korridore ekologikoen sarea.
Europar Batasunaren intereseko habitatak.
Natur ibilbideak.
Interes bereziko eremuak uhalde enara ( <i>Riparia riparia</i> ) bizitzeko.
Lorzoru kutsatuak.

Ondo mapan, proposatutako aukerak ageri dira, bizitegi lurzoru, industria lurzoru eta hiri lurzoruaren zedarriztatze berriari dagokienez.





## 2. Ebaluazio prozesuaren azterketa.

### 2.1. Ingurumen Azterketa Estrategikoaren balorazioa: kalitatea eta ondorioak.

Ingurumen Azterketa Estrategikoaren edukiak aztertuta, ingurumen erakunde honen iritiz, orokorrean eta egituraren arloan, agiriak kalitate egokia dauka txosten honen xede den HAPOn Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa gauzatzeko. Agirian bertan, eragindako eremuaren ingurumen azterketa, diagnostikoa eta ebaluazioa egiten da, eraginak zehazten eta ebaluatzen dira eta prebentzio zein zuzenketa neurriak proposatzen. Horrez gain, ingurumen integrazioko neurriak zehazten dira eta planaren ondorioak gainbegiratzeko programa osoa jaso da. Nolanahi ere, aurreragoko ataletan, arreta bereziz eta banaka aztertu behar diren alderdiak eta/edo gaiak jorratuko dira, zenbait kasutan, berrikusi beharko lirakeenak.

### 3. Irismen agirian eta egindako kontsulten emaitzetan ezarritako eskakizunen gaineko go-goetak.

#### 3.1. Irismen agirian ezarritako eskakizunak.

Hasteko eta bat, aipatu behar da aldaketa esanguratsuak gertatu direla HAPOn aurrerapenean jasotako antolamenduaren eta HAPOn hasierako onarpenean jasotako antolamenduaren artean. Jarraian, aldaketa nagusien berri emango dugu era laburrean:

- Hiri lurzoruaren mugak berriro zehaztu dira: oro har, hiri lurzoruaren sailkapenak nahiz desklasifikazioak gutxitu dira.

- Bizitegi eremuen aukerak: Aukeratutako bizitegi eremu bat kendu da, hain zuzen ere, "Camposanto" (ekialdea) izeneko aukera. Aukera hori, bada, eragin handienekoa da, lurzoria okupatzen duelako oraingo herrigunetik urrun dauden eremuetan.

- Industriako lurzoruaren aukerak: Aukeratutako industria lurzoruko eremu bat kendu da, hain zuzen ere, "Luis Cañas" izeneko 2. sektoreko industriako lurzoruaren eremua. HAPOn hasierako onarpenaren aldi honetan, lehendik dauden upeltegiak zein Luis Cañas upeltegiaren handitzea lurzoru urbanizaezinaren plan berezi batek garatu beharreko eremu baten barruan koka daitezela proposatu da. Era berean, "Herrera" hegoaldea industria aukera nabarmen handitu da, Herrera errekaen ertzeko haltzadia-zumardia ere txertatzeko. HAPOn aurrerapenean, lurzoru urbanizaezinaren mugaren zedarriztapentzat jaso zen. Hala eta guztiz ere, industriako hiri lurzoruaren barruan, haltzadia-zumardia gune librean sistema orokorraren baitan proposatu da eta, beraz, ez da proposatu eremu horretan eraginik izan dezakeen industriako garapenik.

- Sistema orokorrak: gune librean sistema orokorren eremu zabala proposatu da Eskuernagako herrigunetik hego-ekialdera, hain zuzen ere, lurzoru urbanizaezinean (Tejerako hondakin-degi zaharrean). Era berean, Gune librean sistema orokortzat proposatu da Herrera errekaen ertzak biltzen dituen zerrenda zabal bat, Eskuernagako biztanlegunetik igarotzean.

- Lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioa: Kategoriak: "Babes bereziko eremua-Natur balioa dela eta (J.1.1.);" "Babes bereziko eremua-Mendiko larreen babes (J.1.6.);" "Zaindutako eremuak-Historia eta kultura interesa direla eta (J.2.2.);" "Zaindutako eremuak-Mendiko larreak (J.2.6.)" izeneko kategoriak kendu dira edo, behintzat, aurkeztutako planoetan ez dira agertzen, eta "Zaindutako eremuak-Hiri garapenean erabiltzeko desegokiak direlako (J.2.7.)" izeneko kategoria erantsi da.

- Lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioa: Gainjarritako baldintzatzaileak: "Paisaia berezi eta bikainak" izeneko gainjarritako baldintzatzailea kendu da.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2015eko azaroaren 13an emandako Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismen agirian, zenbait eremu definitu ziren, non jarduerak han ezarri gero, ingurumen arazoak ekarri edo ondorio onartezinak izan zitzaizketen eta, horregatik, berrikusi behar ziren Ingurumen Azterketa Estrategikoan. Ondoko tauletan aztertzen dira aipatutako alderdiak.

<b>INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, HIRIGINTZA AGIRIAK ARRETA BEREZIZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIRIARI JARRAIKI</b>	<b>HIRIGINTZA ARAUETAN, NAHITAEZKO BETEKIZUN GISA TXERTATZEKO PROPOSATU DIREN EREMU ARAZOTSUETAKO BALDINTZA BEHARIAZKOAK</b>
<b>HIRI LURZORUA ERTZAK BERRIRO DEFINITzea</b>	
<p>(Irismen agiriaren hitzez hitzeko kopia): "Lehenik eta behin, aipatu beharra dago proposatutako bi desklasifikazioei on deritzegula ingurumenaren alderditik, bereziki, Herrera errekararen ondoan dagoen 3.900 metro koadroko hiri lurzoruko eremua, tarte horretan, urertzeko landaretza interesgarria hazten delako eta, gainera, elementu garrantzitsua delako konektibitate edo lotura ekologikoa ahalbidetzeko tokiko esparruan.</p> <p>Saillapen berriei dagokionez, Hasierako Agiri Estrategikoan jasotzen den informazioa, oro har, nahikotzat jotzen da hiri mugen birdefinizioak sorrarazten dituen ingurumen eraginak ebaluatzeko. Hala ere, sustatzaileak emandako informazioan deskribatu ez den gabezia guztiz nabarmena antzeman da.</p> <p>Hain zuzen ere, Eskuernagako herrigunearen hegoaldean, saillapen berria proposatzen da hiri lurzoruaen oraingo mugaren eta 1. industriako aukeraren ("Herrera") artean. Saillapen horrek eragina izango luke Herrera errekararen inguruan hazten den ingurumen interes handiko haltzadi-zumardiaren luzetarako zerrenda bati. Erreferentziako ingurumen araudiari erreparatuta, erreka hori uhalde enararen (Riparia riparia) interes bereziko eremua dela eta lur horiek Arabako Korridore Ekologikoen Sarearen barruan daudela kontuan harturik, gure aburuz, urertzeko haltzadi-zumardi horrek ez du inolako eraginik jaso behar. Ingurumen Azterketa Estrategikoak arretaz jorratu eta aztertu behar du auzi hori.</p> <p>1. zerbakidun hiri lurzoruaen saillapenari dagokionez, esan behar da kalteak gerta litezkeela katalogoan sartutako intereseko habitat honetan: "6220* gramineoen eta Thero-Brachypodieta espezieko urteko landareen eremu substepetikoak", 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera. Hori horrela, Ingurumen Azterketa Estrategikoak auzi hori aztertu eta justifikatu beharko du.</p> <p>2. zerbakidun hiri lurzoruaen saillapenari dagokionez, kalteak gerta litezke tamaina handiko zenbait zuhaitz eta zuhaixketan (Pinus halepensis, Castanea sativa, Sambucus nigra...). Zuhaitz horiek guztiak, gaur egun, malda handiko ezponda baten egonkortasuna sendotzen dute eta, aldi berean, faunako espezie batzuen aterpearena egiten dute. Hortaz, Ingurumen Azterketa Estrategikoak auzi hori aztertu eta justifikatu beharko du.</p> <p>Hiri lurzoruaen gainerako saillapen berriek, antza denez, ez dute eragin esanguratsurik ingurune naturalaren gainean. Hala ere, Ingurumen Azterketa Estrategikoak behar bezala aztertu beharko du ingurumen eragin kaltegarri nabarmenik ez dagoela eremu berri horietan.</p>	<p>Ingurumen Azterketa Estrategikoak: Alderdi hori Ingurumen Azterketa Estrategikoaren "0.2.3.1. Hiri lurzoruaen mugak berriro zedarritzatzea" deritzon atalean jorratzen da.</p> <p>Desklasifikazioei dagokionez, adierazi behar da Hasierako onarpenean Herrera errekatik hurbileko hiri lurzoruaen azalera gutxiago desklasifikatzen dela aurrerapenaren proposamenaren baino, eta gertaera horri ez diogu on irizten.</p> <p>Hiri lurzoruaen mugak berriro zedarritzatzea esparruan, hiri lurzoruaen saillapen berriei dagokionez, Hasierako onarpenaren agirian ezabatu da hiri muga handitzeko aukera Eskuernagako herrigunearen hegoaldeko eremuan; hala ere, agiri horretan proposatzen da haltzadi-zumardiek osatutako urertzeko landaretza daukan Herrera errekararen alde hori Alternativa Industrial 1 "Herrera" izeneko 1. industria aukeran sartzea. Kontuan hartu behar da urertzeko landaretza hazten den eremu guztia Gune libreen sistema orokorrean txertatutako litzatekeela eta, beraz, badirudi horren taxuzko zaintza bermatuko litzatekeela. Agiri honen aurreragoko ataletan, eskatzen da hainbat baldintzazaila ezar daitezzen Gune libreen sistema orokorrean.</p> <p>1. zerbakidun hiri lurzoruaen saillapenari dagokionez, Ingurumen Azterketa Estrategikoan jasotako azalpena honakoan datza: kamioiek maniobrak behar bezala egin ditzaten, lurzati horretan egin beharreko handitze obra gauzatu baino lehen, egiaztatu beharko da handitze lan horiek aipatutako espeziearen finkapen eta garapen eremuari eragin ahal dioten.</p> <p>2. zerbakidun hiri lurzoruaen saillapenari dagokionez, on irizten diogu Hasierako onarpenaren agirian 2. zerbakidun hiri lurzoruaen saillapena kentzeari, horrela ez bailitzateke eragingo Irismen agirian aipatzen diren zuhaixka eta zuhaitzei. Hasierako onarpenaren proposatutako hiri lurzoruaen mugen handitze berriei dagokionez, oro har, egoki eta neurritsutzat hartzen dira, ia-ia handitze gehienak Komunikazioen sistema orokorreko lursailak hartzeako baitira.</p>
<b>Industria lurzorua: 1. aukera: "Herrera"</b>	
<p>(Irismen agiriaren hitzez hitzeko kopia): Eskuernagako herrigunearen hegoaldeko eremuan dagoen industria lurzoruaen aukera hori hertsiki lotzen zaio Herrera erreka inguratzen duen haltzadi-zumardiaren luzetarako zerrenda saillakatze proposamenari, proposatutako industria lurzorua hiri bilbearekin lotzeko. Alabaina, gainera, industria lurzoruaen 1. aukera honek ere arestian aipatutako urertzeko haltzadi-zumardia hedatzen deneko lurreei eragiten die; hortaz, erreferentziako ingurumen araudia aintzat hartuta, erreka uhalde enararen (Riparia riparia) interes bereziko eremua dela aintzat hartuta eta lur horiek Arabako Korridore Ekologikoen Sarearen barrukoak direla aintzat hartuta, onena litzateke urertzeko haltzadi-zumardi horrek inolako eraginik ez pairatzea, ingurumen balio bikaina daukalako. Ingurumen Azterketa Estrategikoak arretaz jorratu eta aztertu beharko du auzi hori.</p>	<p>Ingurumen Azterketa Estrategikoak: Alderdi hori Ingurumen Azterketa Estrategikoaren "0.2.3.2. Industria lurzoruaen 1. aukera ("Herrera")" deritzon atalean jorratzen da. Hasierako onarpenaren proposatu da Herrera errekararen urertzeko landaretzaen eremua, haltzadi-zumardi batek osatutakoa, "Herrera" izeneko industria aukerari txerta dadin; hala eta guztiz ere, urertzeko landaretzaen eremu osoa Gune libreen sistema orokorrean sartuko litzateke eta, horretaz eremuaren taxuzko zaintza bermatuko litzateke. Agiri honen aurreragoko ataletan, eskatzen da hainbat baldintzazaila ezar daitezzen Gune libreen sistema orokorrean.</p>
<b>Bizitegi lurzorua 1. aukera: "Mayor"</b>	
<p>(Irismen agiriaren hitzez hitzeko aipamena): "Mayor" izeneko bizitegi eremua lurzorua kutsa dezaketen jardueren eraginpean ego den kokaleku batean dago, kontsulente aldiari IHOBEn Ingurumen kudeaketarako Sozietate Publikoak emandako informazioari eta Lurzoruaen kutsadura prebenitu eta zuzentzeko 4/2015 Legearen I. eranskinean jasotakoari jarraiki. Kokaleku hori 01057-00003 kodearen bidez erregistratu da eta, hortaz, eskatzen dugu Ingurumen Azterketa Estrategikoak behar bezala azter dezan hizpide darabilgun kasua, arazuko betekizun guztiak betetzeko helburuz."</p>	<p>Ingurumen Azterketa Estrategikoak: Alderdi hori Ingurumen Azterketa Estrategikoaren "0.2.3.3. Bizitegi lurzoruaen 1. aukera ("Mayor")" deritzon atalean jorratzen da, eta HAPOn ere hitzez hitz jaso da. "Antolamendu xehatuko VI-04 eremuan, "Palacio" bizitegi eremua izenekoan, hots, Hasierako onarpenaren agirian deitzen den moduan, lurzorua kutsa dezaketen jardueren eraginpean ego bide den kokaleku horren garapen araudian, IHOBEn adierazitako zehaztapenak jasoko dira".</p>



INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, HIRIGINTZA AGIRIAK ARRETA BEREZIZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIRIARI JARRAIKI	HIRIGINTZA ARAUETAN, NAHITAEZKO BETEKIZUN GISA TXERTATZEKO PROPOSATU DIREN EREMU ARAZOTSUETAKO BALDINTZA BEHARIAZKOAK
<b>HIRI LURZORUA ERTZAK BERRIRO DEFINITZEA</b>	
<b>Bizitegi lurzoru 2. aukera: "Viura"</b>	
<p>(Irismen agiriaren hitzez hitzeko kopia): "Viura" bizitegi eremua Herrera errekararen alboan dago. Erreka uhalde enararen (Riparia riparia) interes bereziko eremua da eta Arabako Korridore Ekologikoen Sarearen barruan dago. Ingurumen Azterketa Estrategikoak balizko ondorio kaltegarri horiek guztiak aztertu beharko ditu eta eremu horren gaineko eragin kaltegarriak ekiditen dituzten babes neurri egokiak zehaztu beharko dira.</p>	<p>Ingurumen Azterketa Estrategikoa: Alderdi hori Ingurumen Azterketa Estrategikoaren "0.2.3.4. Bizitegi lurzoruaren 2. aukera ("Viura")" deritzon atalean jorratzen da eta hitzez hitz jaso da ondano: "Viura" deritzon 2. bizitegi eremua (VI-5 "Viura bizitegi eremua", Hasierako onarpenaren agirian izendatuta dagoen moduan), Herrera errekararen alboan dago. Erreka, berriz, uhalde enararen (Riparia riparia) interes bereziko eremua da. Horregatik, kalifikazio xehatuan, Herrera erreka babesteko zerrenda bat ezarri da.</p>
<b>Bizitegi lurzoru 3. aukera: "Samaniego" eta 5. aukera: "San Torcuato"</b>	
<p>(Irismen agiriaren hitzez hitzeko testua): "Samaniego" eta "San Torcuato" izeneko bizitegi eremuetan, katalogoan sartutako "6220" gramineoen eta Thero-Brachypodieta espezieko urteko landareen eremu subestepikoak intereseko habitata agertzen da eta, beraz, Ingurumen Azterketa Estrategikoak balizko ondorioak aztertu beharko ditu."</p>	<p>Ingurumen Azterketa Estrategikoa: Alderdi hori Ingurumen Azterketa Estrategikoaren "0.2.3.5. Bizitegi lurzoruaren 3. aukera ("Samaniego") eta Bizitegi lurzoruaren 5. aukera ("San Torcuato")" deritzon atalean jorratzen da eta hitzez hitz jaso da ondano: "Aipatutako eremuak honela izendatu dira Hasierako onarpenaren agirian: VI-6 "Las Coronillas" eta VI-5 "San Torcuato Iparra". Katalogoan jasotako "Thero-Brachypodieta" espezieari dagokionez, komenigarriagoa da espezie horren agerpenaren gaineko azterketa garapen plangintzan egitea (Azterketa xehatua eta/edo hirigintza plangintza), ez aldi honetan, denboraren igarok eragina izan baitezake aipatutako espeziearen finkapen eta garapen eremuan. Beraz, azterketa hori lotesletzat joko da dagokion araudi berezian".</p>
<b>Sistema orokorren aukerak</b>	
<p>(Irismen agiriaren hitzez hitzeko kopia): Hasierako agiri estrategikoan jasotako sistema orokorren aukerei dagokionez, adierazi behar da Eskuernagako herrigunearen saneamendua eratzeko Zerbitzuen azpiegituren sistema orokorren zati bat 5. poligonoaren 320. lurzatian dagoela, hain zuzen ere, hondakin urak ponpatzeko estazioa. Etorbizunean, lurzati horretan gauzatzen diren jarduerak (jarduerarik gauzatuko balitz) eragina izan lezakete Herrera errekararen ertzeko haltzadi-zumardian eta, hortaz, Ingurumen Azterketa Estrategikoak nahikoa xehetasunez jorratu eta aztertu beharko du auzi hori. Hala badagokio, eremu horretan sor daitezkeen eragin kaltegarri nabarmenak ekiditeko babes neurri egokiak zehaztu beharko dira. Beste alde batetik, Ekipamenduen sistema orokorren aukerei dagokionez, 5. poligonoan dagoen 21. lurzatia erabiltzea proposatzen da Komunitateko ekipamendu orokorraren sistema orokor gisa. Lurzati horretan, bi beltzale orpo (Ligustrum vulgare) daude, eta horiek oso nabarmenak dira hiri paisaian tamaina, zabalera eta faunarentzako aterpe gisa duten balioagatik. Beltzaleen paisaia balioa dela eta, etorkizuneko balizko jarduketek ale horietan eragin ditzaketen kalteak aztertu behar da eta horiek babesteko neurriak hartu behar dira."</p>	<p>Ingurumen Azterketa Estrategikoa: Alderdi hori Ingurumen Azterketa Estrategikoaren "0.2.3.6. Sistema orokorren aukera" deritzon atalean jorratzen da eta hitzez hitz jaso da ondano: Hasierako onarpenaren agirian, Azpiegituren sistema orokorren lurzatia lehendik eraikita dagoen hondakin urak ponpatzeko estazio berriari dagokio. Herrera errekararen ertzetan hedatzen den haltzadi-zumardiarri dagokionez, lehen azaldu den bezala, guztiz babestuta dago Hasierako onarpenaren agirian, Gune libreen sistema orokor gisa kalifikatu delako ageri den eremu osoa. <u>Dharr:</u> Arestian azaldu den legez, hasteko eta bat, pentsatzeko da haltzadi-zumardiaren taxuzko zainntza bermatuko litzatekeela Gune libreen sistema orokor gisa kalifikatuz gero; hala ere, agiri honen aurreragoko ataletan, eremu horietan zenbait baldintzatzaile ezartzeko eskatzen da.</p>

Azkenik, aipatu behar da lurzoru urbanizaezinaren kategoriari dagokionez, behin-behinean onartutako HAPOk nabarmen aldatu dituela kategorien izenak. Ingurumen adierazpen honen geroko ataletan, xehetasun handiagoz jorratuko da alderdi hori.

### 3.2. Egindako kontsulten emaitza.

Lehenik eta behin, Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismen agiria emateko helburuz egin den kontsulten aldiari dagokionez, aipatutako agiri horretan ondokoak jaso dira: "Ingurumen Azterketa Estrategikoan, beharrezkoa da administrazioek emandako irizpenei kasu egitea (hauek dira administrazioak: Ur Zerbitzua, Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua eta Nekazaritza Zuzendaritza, IHOBE Ingurumen Kudeaketarako Herri Baltzua, Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurune eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza eta Kultura Ondarearen Zuzendaritza). Ingurumen Azterketa Estrategikoan ageri den "0.2.1. Kontsultatutako erakundeetatik jaso diren erantzunak" deritzon atalean, banan-banan jorratzen dira eragindako administrazio publikoetatik eta interesdun erakundeetatik kontsulta aldiari jasotako alegazio txostenak.

Bigarrenez, Ingurumen Azterketa Estrategikoa eta HAPOren hasierako onarpenaren agiria jendaurrean agertu ondoren, norbanakoek eta erakundeek egindako alegazioak eta arloko txostenak jasotzen diren aldiari gagozkiola, ondoko paragrafoetan agertzen dira erakundeetatik jaso diren alegazioak, laburrean adierazita.

### 3.2.1. Norbanakoek eta erakundeek egindako ingurumen alegazioak:

Francisco Martínez de Cañas Araicok alegazio idazkia aurkeztu du eta, bertan, hiru auzi mahairatu dira. Hona hemen hiru auzi horiek laburbilduta: Lehenengoz, proposatu du lur mugimenduak eta mahastiak landatzeko lursailetan egiten diren hondaketa eta prestaketa lanak udal baimenaren menpekoak izatea eta ingurumen teknikariek gainbegiratzea, mahastizaintzari lotutako kultura ondarea eta paisaia berezia babesteko. Bigarrenez, eskatu du "Monte la Iglesia" deritzon bazterrean dagoen zuhaitz berezia (milurteko artea) Kultura ondasun kalifikatuen erregistroan sartzea, dagokion kategoria aitortuta, eta mantentze zein zaintza lanak egin dakizkiola, gure kultura ondarearen harribitxia delako. Hirugarrenez, eskatu du plan orokorrak babes handiena eman diezaiela landa eremuko etxola batzuei (mahastiak zaintzeko etxolak).

Pablo Pérez Echazarretak alegazioa aurkeztu du 4. poligonoan dagoen 886. lurzatia dela eta. Lurzati hori lurzoru urbanizaezinaren gainean datza. Alegazioak "J.2.3. B Ingurumen hobekuntzako eremua" izeneko sailkapena daukan lurzati horren zati batez dihardu. Zedarritapen hori landaretzarik gabeko azpilurzati bati dagokio; alde batean, mahasti zahar batzuk kendu dira eta, beraz, ez dator bat sakabanatutako pinu ale gutxi batzuek osatutako landaretza aloktonoa hedatu den beste eremu batekin, aipatutakotik hegoaldera. Beste alde batetik, aipatu du familia bakarreko etxebizitza eraiki egingo dela lurzatian, bertako nekazaritza jarduerari atxikita eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aldeko txostena daukala. Alegazio egileak kalifikazio globala aldatzeko eskatu du, "J.2.3. B Ingurumen hobekuntza eremua" delakotik "J.1.5. Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabaleko babes bereziko eremua" delakora, landaretzarik gabeko esparruan. Nolanahi ere, aipatutako lurzatian landaretza autoktonorik balego, Gune librean sistema orokor batean landatuko litzateke.

### 3.2.2. Administrazio publikoek egindako alegazioak:

IHOBE S. A. Ingurumen Kudeaketarako Herri Baltzuak adierazi du txostenean era zuzenean jaso dela historian zehar kutsadura sor zezaketen lurzatiak ageri direla eta horiek arriskurik ekar liezaiketela etorkizuneko erabiltzaileei eta/edo ingurumenari (jarduera horiek irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan arautzen dira). Beste alde batetik, erakunde horrek adierazi du Lurzoruaren kalitatearen adierazpena beharrezkoa izango dela Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 23. artikulua xedatutako inguruabarren bat gertatuz gero. "Hori dela eta, inbentarioan jasota dagoen kokalekuren batean jarduketa hasi baino lehen, lehenik eta behin, lurzoruaren kalitatea azter dadila eskatu behar da (urriaren 10eko 199/2006 Dekretuak dioenari jarraiki), ezarritako erabilerak aintzat hartuta, dena delako lurzatiaren erabiltzaile diren pertsona eta langileentzat lurzoruaren kutsadurari lotutako arriskurik ez dagoela bermatzeko helburuz, eta bigarrenaz, utzitako hondakin, eraikin eta hondeatzen diren lurren kudeaketa egokia egin dadila, hondakinen arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki".

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Euskal Kultura Ondarearen Zentroak gomendioa eman du "3.1.3.3. Historia eta arkitektura intereseko ondarea babesteko araubidea" artikuluan txertatzeko. Gomendioak dienez, obren proiektuak fitxetan onartutako jarduketek araututako irizpideen arabera ez direnean, txostena eskatu beharko da Arabako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen arloan eskumena daukan organoari.

Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak, Eskuernagako udalerrian dagoen arkeologia ondarearen sailkapen xehea egin ondoren, ondokoa jaso du txostenean: "arkeologia ondarea babesteko, oso garrantzitsua da HAPOk ezartzea ondare horren elementuren baten gaineko jarduketa bat (eraikitzeko jarduketa bat edo beste zeinahi motatako jarduketa bat) egin baino lehen, Arabako Foru Aldundiko Arkeologia arloan eskumena daukan sailaren aurretiazko baimena eskuratu beharko dela".

URA Ur Agentziak ondokoa adierazi du txostenean: “Eskuernagako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hurrengo urratsetan, honako hauek jaso beharko dira:

– VI.09 “Herrera” (Hegoaldea) eta VI.05 “Viura” (Ekialdea) industria eta bizitegi eremuen inguruko azterketa (araudi aplikagarria agertzen da).

– Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren adostasun txostena. Txosten horrek ziurtatu behar du egungo sareek eta, hala badagokio, etorkizuneko sareek karga berriei eutsi ahal izango dietela eta baliabide nahikoak badaudela eskari berriei aurre egiteko.

Azkenik, txostenean gogorarazi da Jabari Publiko Hidraulikoari eragiten dioten edo haren zortasun nahiz zaintza eremuetan egiten diren jarduketek administrazioaren baimena eskuratu beharko dutela aurretiaz. Era berean, txostenak dio debekatuta dagoela azaleko urak edo Jabari Publiko Hidraulikoaren beste zeinahi elementu kutsa dezakeen zuzeneko edo zeharkako isurketarik egitea, aurretiaz administrazioaren baimena izan ezik.

Eusko Jaurlearitzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak emandako txostenaren helburua hau da: “Zuzendaritza horrek ondoko ondoko txostenetan adierazi dituen irizpenei nola erantzun zaien azterzea eta egokitzat jotzen diren behar beste ohar egitea” lldo horretan, hiru alderdi aipatu ditu:

– “Egiaztatu da “Herrera” industria eremuari eta “Viura” bizitegi eremuari dagokienez, Herrera errearen inguruko ertzak babesteko zerrenda ezarri dela, Gune libreen sistema orokor gisa, eta Zuzendaritza honek guztiz aldekatuz jotzen du neurria. Nolanahi ere den, uhalde enarari (Riparia riparia) dagokionez, gogorarazi behar da Arabako Foru Aldundiaren xedapenei men egin behar zaiela, espezie horren kudeaketa planaren erakunde arduraduna denez gero”

– *Ononis fruticosa* espeziea hazten den zehazteko eskatu zen azterketa botanikoari dagokionez, eta Ingurumen Azterketa Estrategikoan jasotako irizpenak aintzat hartuta, “HAPO behin-behinean onartu baino lehen, azterketa botaniko egokia egin dadila eskatzen da, *Ononis fruticosa* espeziea garapeneraren xede diren eremuetan hazten denetz zehazte aldera”

– Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagokionez, “berriro ere eskatzen da lurzoru urbanizaezina antolatzeke proposamena berrikustea (gaur egun, babestu beharreko formazio gehienak B Ingurumen hobekuntzako zaindutako eremua eta Basogintzako interesa dela eta zaindutako eremua izeneko kategorietan sailkatuta daude), bai eta intereseko landaretza formazioak (Batasunaren intereseko habitatak: 6220\*, 9340, 6210\* eta 9240, eta beste formazio autoktono batzuk: erromerodia eta erriberako haltzadi mediterranea), babes bereziko berriazko kategoriatan baten barruan sailkatzeke”

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak hainbat eskaera egin ditu araudiaren inguruko zuzenketak edo ñabardurak egiteko, nekazaritzako lurzoruen eta haiei atxikitako jardueren babes errazteko helburuz. Gainera, lurzoru urbanizaezineko lurzati batzuk berriro sailkatzeke proposamenen zerrenda erantsi du.

Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak kultura ondarearen babesari buruzko gogoeta batzuk jaso ditu txostenean, eta ondokoa nabarmendu du: “Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 27/2006 Legearen 53. artikuluan ezarrita dagoen lege, babes ardezpideak aurkeztu behar dira, kasu honetan, kultura ondareari doazkion babes ardezpideak, eta manu horiek ere egiturazko hirigintza antolamendua osatuko lukete; azken batean, dena delako higiezinak kategoriatan batean edo beste batean sailkatzeke funtsezkotzat jotzen diren parametroen helburua nabarmendu nahi da, kulturaren babesari dagokionez”. Era berean, HAPOn agirian aldatu eta osatu beharreko alderdi batzuk azaldu ditu txostenean.

Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak aurrekoaren antzeko txostena eman du, 2016ko otsailaren 2an, hasiera batean onartutako HAPOn agiria aztertu ondoren. Erakunde horrek aldeko irizpena eman du planoetan ezarritako zortasun aeronautikoei (Logroño-Agoncilloko aireportukoak) dagokienez.

#### 4. Eragin nabarmenen eta ingurumen integraziorako neurrien aurreikuspenaren azterketa.

Eskuernagako HAPOk sorrarazten dituen eragin nabarmenenak Ingurumen Azterketa Estrategikoaren VI. kapituluaren, "Balizko eragin nabarmenak ingurumenean" izenekoan, deskribatzen dira. Oro har, Eskuernagako HAPOn aplikazioak sorraraz ditzakeen eragin nabarmenen aurreikuspenaren azterketa era egokian egin dela uste dugu, honako alderdi hauek, kasu gehienetan, banan-banan eta behar besteko sakontasunez aztertu baitira:

- Natura baliabideen galera.
- Ingurumenaren ikuspegitik, kalteberak diren eremuen gaineko eragina.
- Estetika, kultura eta paisaiari lotutako baliabideen gaineko eragina.
- Baliabide berriztagarri eta ez-berriztagarrien gaineko eragina.
- Hondakinen sorrera eta kutsaduraren igoera.
- Giza osasuna eta hiriko ingurumenaren kalitatea.
- Ekologia eta nekazaritzako ekoizkortasunaren galera.
- Kultura ondarearen galera.
- Ingurumen arriskuak.

Oro har hartuta, lurzoru urbanizaezina antolatzekeo egitura zuzena da, baina Ingurumen Azterketa Estrategikoan jasotzen ez den aldaketa esanguratsu bat antzeman da aurrerapenaren agirian proposatu zen kategorizazioaren eta hasierako onarpenari lotutako planoen artean: Azken proposamenean (hasierako onarpenari lotutako planoetan), "J.1.1. Babes bereziko eremua – Natura balioa dela eta" deritzon lurzoru urbanizaezinaren kategoria kendu da. Arabako Foru Aldundiak 2015eko azaroaren 13an emandako Irismen agirian honakoa adierazi zen: "udalerriko baso eremu autoktonoak eta landaretza autoktonoa duten ibai eta erreken ertzak Ingurumen Azterketa Estrategikoan identifikatu behar dira eta Babes bereziko eremuaren kategorian (natura interesa dela eta) ere zonakatu behar dira, horien babesa bermatzeko". Alderdi hori xehetasun handiagoz jorratzen da honako adierazpen honen hurrengo atalean.

Zehaztutako kategoriak eta gainjarritako baldintzatzaileak ez dira nahikoak; izan ere, hasierako onarpenaren agirian, "Paisaia bereziak eta bikainak" gainjarritako baldintzatzailea kendu da, eta horri gaizki deritzogu, Eskuernagako udalerraren esparruan, "Nabaridasko aintzira" paisaia bikaina ageri baita (38. kodea), Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoari jarraiki (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiaren bidez onartu zen). Hurrengo atalean zehazten denez, alderdi hori berriro atertu behar da.

Ingurumen Azterketa Estrategikoan jasotako ingurumen integrazioko neurriek, hain zuzen ere, "Ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarri garrantzizkoak prebenitu, gutxitu eta, ahal den neurrian, konpentsatzeko neurriez" diharduen VII. kapituluak dakartzanek, gomendioak eta jardunbide egokiak aipatzen dituen; gehienbat neurri orokorrak dira eta ez da aukeratutako eremu berriaren inguruko aipamen zehatzik egiten:

- Hiri lurzoruaren mugaren zabalpena.
- "Palacio" bizitegi lurzoru berria (Erdialdea).
- "Viura" bizitegi lurzoru berria (Ekialdea).
- "Las Coronillas" bizitegi lurzoru berria (Mendebaldea).
- "San Torcuato" bizitegi lurzoru berria (Hegoaldea).
- "San Torcuato" bizitegi lurzoru berria (Iparraldea).
- "Herrera" industria lurzoru berria (Hegoaldea).

5. Berrito definitu edo kendu beharko liratekeen HAPOn jarduketan aipamena.


Arestian aipatu dugun 21/2013 Legearen 26. artikulua xedatzen duenari jarraiki, Ingurumen Adierazpen Estrategiko honetan jasotzen diren zehaztapenak HAPOn txertatu behar dira.

Oro har hartuta, esan beharra dago ez dela HAPOn jasotako jarduketarik kendu beharko, baina, dena dela, plangintza berriko neurrien bat berriro definitu beharko da:

1. Ingurumen Azterketa Estrategikoaren "0.2.3.7. Lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioa" izeneko atalean, ondokoa esaten da hitzez hitz: "Hasierako onarpenaren agirian, aurrerapeanean jasotako zonifikazioari eutsi zaio, lurzoru urbanizaezinarekiko mugan egin diren doiketa batzuk gorabehera". Hala eta guztiz ere, egiaztatu dugunez, Hasierako onarpenari atxikitako planoetan "J.1.1. Babes bereziko eremua – Natura balioa dela eta" deritzon kategoria kendu da lurzoru urbanizaezinaren sailkapenean, eta horri gaizki deritzogu. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Iraunkortasunaren Zerbitzuak 2015eko azaroaren 13an emandako Irismen agiriaren "5.1. Dibertsitate biologiko eta paisaien babesari lotutako ingurumen irispide estrategikoak eta iraunkortasun abiaburuak" deritzon atalean, honakoa adierazi zen hitzen hitz: "4. udalerriko baso eremu autoktonoak eta landaretza autoktonoa duten ibai eta erreken ertzak Ingurumen Azterketa Estrategikoan identifikatu behar dira eta Babes bereziko eremuaren kategorian (natura interesa dela eta) ere zonabanatu behar dira, horien babes bermatzeko. Ingurumen Azterketa Estrategikoak ebaluatu beharko ditu ingurumen sentikortasuna duten eremu horiek.

Era berean, basoberritzeko partzuergoaren bitartez, baso sailak leheneratzeko jarduketak egin diren edo egingo diren lurretan dauden azalera baso izaerako lurzoru urbanizaezinaren babes kategoriaren batean txertatu beharko dira, eta espezie autoktonoen bidezko basoberritzeak sustatu beharko dira. Ildo horretan, eskatu behar dugu ondoko irudian ageri den zuhaitz landaretza autoktonoa hazten den eremuak lurzoru urbanizaezinaren "J.1.1. Babes bereziko eremua – Natura balioa dela eta" kategorian txerta daitezela, eremu horiek babes maila jakina baitute Habitat Naturalak eta Fauna eta Flora Basatiak Babesteko 92/43/EEE Zuzentarauak ezarritakoari jarraiki.





Beste alde batetik, jendaurreko informazioaren aldiari jasotako alegazioak aintzat hartuta, gure aburuz, "Monte la Iglesia" izeneko bazterrean dagoen milurteko artea lurzoru urbanizaezinararen "J.1.1. Babes bereziko eremua – Natura balioa dela eta" kategoriaren barruan txertatu behar dela eta horren zaintza zorrotza bermatu behar dela, ingurumen sentikortasun handiko elementua delako. Ondorio horretarako, J.1.1 deritzon kategoria horretan, arteak hartutako guztizko azalera eta horren inguruko 25 metroko erradioko aldea biltzen dituen esparrua sartu beharko da.

2. Hasierako onarpenaren agiriak dakarren proposamen jakin bati dagokionez, Herrera errekeren erriberako ertzak (Eskuernagako herrigunetik igarotzen den tartean) aintzat hartzen dituen zerrenda zabal bat Ekipamendu libreen sistema orokorrean sartzeko proposamenari dagokionez, eskatu beharra dugu kalifikazio horrek artifizializaziorik eta lorategi itxurako hornidurarik ez ekartzea aipatutako eremuan, taxuzko zaintza bermatzea eta eremuaren naturalizazio egoera eta zaintza hobetzeko neurriak hartzea baizik. Beraz, hirigintza agirian berariaz adierazi beharko da sistema orokor horretan zorrotz babestuko dela "haltzadi-zumardiari" dagokion erriberako landaretza, eta eremu horretan, espezie autoktono egokien bidezko landareztatze jarduketak baino ez direla onartuko, erriberako landaretzaren babesa sendotzeko eta eremu osoa naturalizatzeko helburuz, betiere espezie aloktonoen bidezko lorategi itxurako apainketa saihestuta.

3. Eskuernagako herrigunearen hego-ekialdean, behin betiko itxitako hondakindegia zaharra ("Tejerako hondakindegia, 01057-00001 kodea) zegoen lurretan eratu den lurzoru urbanizaezinararen Ekipamendu libreen sistema orokorrari dagokionez, aipatu beharra dago egokiagoztat jotzen dela lurzoru urbanizaezinararen "J.1.3. Babes bereziko eremua - A Ingurumen hobekuntza" kategorian sartzea, "Ekipamendu libreen sistema orokorrean" sartzea baino.

4. Hasierako onarpenaren agirian, "Paisaia bereziak eta bikainak" gainjarritako baldintzaztailea kendu da, eta horri gaizki deritzogu, Eskuernagako udalerrriaren esparruan, "Nabaridasko aintzira" paisaia bikaina ageri baita (38. kodea), Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoari jarraiki (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiaren bidez onartu zen).

Hain zuzen ere, Ingurumen Azterketa Estrategikoaren "0.2.2. Ingurumen kalitate eta hauskortasun handiko esparru nagusiak. Ingurumen arazoak ebaluatutako eremuan" deritzon atalean, honakoa jaso da hitzez hitz: "Nabaridasko aintzira" deritzon paisaia bikainari dagokionez, Eskuernaga eta Nabaridasko udalerrien arteko mugak eratzen duen ur banalerrotik ibiltzen diren balizko bisitari harrera egiteko aldeak, paisaiaren ikuspegitik, nahikoa babesten dituzte alde horiek daudeneko lurzoru urbanizaezinararen kategoriek." Egia da Eskuernagako udalerrian dagoen "Nabaridasko aintzira" deritzon paisaia bikainari atxikitako azalera nahikoa txikia dela, baina beharrezkotzat jotzen da aipatutako gainjarritako baldintzaztaileari eustea, katalogoan jasota dagoen eremu horren paisaia ezaugarriak babesteko.

Gainjarritako baldintzaztaile hori behar bezala islatu behar da planoetan eta HAPOn araudian, hain zuzen ere, "1.6.1.6. Gainjarritako baldintzaztaileak dituzten eremuetako erabilerei ezarritako muga osagarriak" deritzon artikuluan, eta beren-beregi adierazi behar da Eskuernagako Udalak "Paisaia Berezi eta Bikainen" gainjarritako baldintzaztailearen esparruaren barruko zeinahi instalazio eraikitze baimena eman baino lehen, paisaia eraginari buruzko txostena egin behar dela, eta baldintza egokiak ezarriko direla gauzatu beharreko instalazioen paisaia integrazioa behar bezalakoa izan dadin bermatzeko.

#### 6. Ingurumen jarraipena egiteko plana

Ingurumen Azterketa Estrategikoaren IX. kapituluan, ingurumen jarraipena egiteko plana eta jarraipen adierazleak proposatu dira; halaber, kasuan-kasuan ezarri dira jarraipenaren eta aurreikusitako programazioaren arduradunak.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

**XEDATZEN DUT**

Lehenengoa. Eskuernagako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa ematea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, 41. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritz, ingurumen adierazpen estrategiko hau ingurumen irizpen erabakigarria izango da, gauzatzeko neurriei eta baldintzei dagokienez. Lege horren 26. artikularekin bat etorritz, sustatzaileak adierazpen honen edukia jasoko du aldaketa puntualaren hirigintza agirian.

Hirugarrena. Ingurumen adierazpen estrategiko hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 14a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria*  
**AMAIA BARREDO MARTÍN**